

# esteribar

2022 ABENDUA / DICIEMBRE

Nº 11 ZKIA.

ESTERIBARKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ESTERIBAR



AURRERA  
GOAZ  
ESTERIBAR  
AVANZA

### EERREPORTAIA REPORTAJE

Errigora: 200.000€ Agerreko euskalgintzara bideratu dira.  
**Errigora: se han destinado 200.000€ a favor del euskera del Ager. Pág. 8**

### ALBISTEA NOTICIAS

Esteribarrek bere lehen Berdintasun Diagnostikoa egiteari ekin dio.  
**Esteribar se lanza a realizar su primer Diagnóstico de Igualdad. Pág. 6**


### ZUBILAN

Ikasturtean zehar 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzako saio gidatuak.  
**Sesiones dirigidas para jóvenes de entre 14 y 18 años. Pág. 10**

# esteribar

Edita | Argitaratzailea Esteribarko Udal | Ayuntamiento de Esteribar  
Orreaga Etorbidea 13. PK | CP: 31630 Zubiri 948 304 071  
[www.esteribar.org](http://www.esteribar.org)

Diseinua eta erredakzioa | Diseño y Redacción Labrit Multimedia Argazkiak | Fotografías G. Seminario eta | Ayuntamiento de Esteribarko Udaletxea Itzulpena | Traducción Kike Diez de Ulzurrun Inprimatzalea | Imprime Huarte Gráfica LG | DL 899-2022



### TELÉFONOAK · TELÉFONOS

Udala / Ayuntamiento **948 304 071**  
Erregistro zibila / Registro Civil **948 304 071**  
Euskara Zerbitzu / Servicio de Euskera **618 757 377**  
Uharte eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea /  
Mancomunidad de Servicios Sociales Huarte y Esteribar **948 333 223**  
Cederna-Garalur **639 905 357**  
Esteribar Kiroldegia / Polideportivo **948 304 007**  
Ollokiko Gizarte Etxea / Centro Cívico de Olloki **948 517 796**  
Gargantxo Ludoteca / Ludoteca **948 304 007**  
Esteribarko Haur Eskola / Escuela Infantil **948 361 575**  
Gloria Larraínzar I.P. / C.P. (Zubiri) **948 304 513**  
Virgen Blanca I.P. / C.P. (Uharte) **948 335 057**  
Pedro de Atarrabia DBHI / IESO (Atarrabia) **848 43 07 70**  
Askatasuna BHI / IES (Burlata) **848 43 08 50**  
Orreaga Musika Eskola / Escuela de Música Orreaga **616 725 218**  
Uharteko Osasun Etxea / Centro de Salud de Uharte **948 335 033**  
Zubiriko kontsultategia / Consultorio de Zubiri **948 304 106**  
Eugiko kontsultategia / Consultorio de Eugi **948 304 319**  
Larrasoña kontsultategia / Consultorio de Larrasoña **948 304 342**  
Botika / Farmacia (Zubiri) **948 304 226**  
Artieda autobusa / Autobús de Artieda **948 300 287**

### KONTZEJUAK · CONCEJOS

C. de Antxoritz | Antxorizko K.: Ana Gurbindo | [concejodeantxoriz@gmail.com](mailto:concejodeantxoriz@gmail.com)  
C. de Eugi | Eugiko K.: Unai Seminario | [concejodeeugi@gmail.com](mailto:concejodeeugi@gmail.com) 948 304 047  
C. de Inbuluzketa | Inbuluzketako K.: Fran Equisoain | [franequi@hotmail.es](mailto:franequi@hotmail.es)  
C. de Iragi | Iragiko K.: David Sánchez | [concejoiragi@gmail.com](mailto:concejoiragi@gmail.com)  
C. de Larrasoña | Larrasoñako K.: Argiloa Mangado | [concejodelarrasonoana@gmail.com](mailto:concejodelarrasonoana@gmail.com)  
C. de Saigots | Saigotsko K.: David Uriel | [davidurioe@yahoo.es](mailto:davidurioe@yahoo.es)  
C. de Sarasibar | Sarasibarko K.: Enrique García | [concejo.sarasibar@gmail.com](mailto:concejo.sarasibar@gmail.com)  
C. de Zabaldeka | Zabaldeka K.: Cruz Zazpe | [concejodezabaldeka@gmail.com](mailto:concejodezabaldeka@gmail.com)  
C. de Zubiriz | Zubiriko K.: Álvaro Fonseca | [concejodezubiri@gmail.com](mailto:concejodezubiri@gmail.com)  
C. de Urdaiz | Urdaizko K.: Txus Arana | [urdaitzurdaniz@gmail.com](mailto:urdaitzurdaniz@gmail.com)



## Hitzez ekiteko garaia Tiempo de la palabra

ESTERIBAR

2022 · 11 · 22

Amaitu da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Hamabost egunez txapa soinean eramanik, hizkuntza ohiturak aldatzeko erronkari heldu diogu. Ahobizi eta belarri-prestok egoera ezberdinak bizi eta kudeatu behar izan ditugu; lorpenak eta ezinak, ezusteko onak eta une deserosoak, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak egoera berriei aurre egitea eskatzen du eta.

Izan ere, euskaldunok non, noiz, norekin, zein hizkuntza aukeratu erabaki behar izaten dugu momentuoro. Eta baldintzatuta edo lasai egin ezin dugunean, estres linguistikoak pairatzen dugu. Hizkuntza bakarra dakienak ez du estres linguistikorik pairatzen, elebidun garenok, ordea, askotan, besteak beste, euskarak lasai iza-teko beharrekoak dituen eremu, aukera eta baldintza egokirik gabe jarraitzen baitu.

Euskaratik erdarara pasatzea edota erdaratik euskarara igarotzea ez da arbitrarioki egiten den aukera xumea, baizik eta hainbat faktorek eragindako hautu bat. Ehunka esteribartarrek egin dugu hautua Euskaraldian zehar euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan aritzeko. Hemendik goiti ere, Esteribarren geroz eta erosago eta libreago egin nahi dugu euskaraz. Jarrai dezagun zabaltzen hitzez ekiteko garaia!

Ha terminado la tercera edición de Euskaraldia. Tras quince días con la chapa puesta hemos abordado el reto de cambiar los hábitos lingüísticos. Ahobizi o Belarriprest, hemos tenido que vivir y gestionar diferentes situaciones; logros e imposibilidades, buenas sorpresas y momentos incómodos, porque el proceso de cambio de hábitos lingüísticos requiere afrontar nuevas situaciones.

Y es que los y las vascoparlantes tenemos que decidir en cada momento qué idioma usar. Y cuando lo hacemos condicionados o intranquilos sufrimos estrés lingüístico. El que sabe una sola lengua no sufre este estré, mientras que las que somos bilingües, muchas veces, seguimos sin tener las condiciones adecuadas que el euskera necesita para ser hablado con tranquilidad.

Pasar del euskera al castellano o del castellano al euskera no es una opción sencilla que se haga arbitrariamente, sino una elección motivada por diversos factores. Cientos de esteribartarras hemos elegido hablar más, más y más en euskera a lo largo de Euskaraldia. Y de aquí en adelante, en Esteribar queremos hacer el euskera cada vez más cómodo y libre. ¡Sígamos ampliando el tiempo de la palabra!

## 50 lagunetik gora Gau Beltzan Más de 50 txikis en la Gau Beltza

ZUBIRI  
2022 · 10 · 31



Eguna iluntzearekin, haurrak iza-  
ra, trapu, arropa zaharrekin egin-  
dako mozorroak jarrita eta aurpe-  
giak margotuta kalera atera ziren.  
Gurasoek lagunduta eta musi-  
kaz alaiturik, herriko plazarenai-  
abiatu ziren. Bidetik, etxeetatik  
eskean ibili ordez, haien margo-  
tutako gaztainak banatu zituz-  
ten. Plazan gynkana beldurgarri  
eta aldi berean dibertigarria prest  
zuten. Gau Beltzeko elementuen  
puzzlea osatzea zuten helburu eta  
horretarako, plazaren ingurueta-  
tik izkutaturik zeuden pertsonaia  
misteriosuak aurkitu eta haiei  
pieza bakoitza eskatzea kemena  
izan behar zuten. Haurrak banaka,  
binaka edo taldean abiatu ziren,  
eta den-denak ikaragarri ausartak

izan ziren. Puzzleak osatu eta gy-  
nkana amaitzeko galderari erant-  
zun zioten: Zer egin dezakegu  
kalabazkin? Erantzuna bera izan  
zen gynkanaren saria, bertaratut-  
ako guztien artean kalabaza kre-  
ma eta kalabaza bizkotxoa banatu  
baitzen.

Al anochecer, vestidos con sába-  
nas, trapos y ropas viejas y con  
las caras pintadas salieron a las  
calles. En compañía de las fami-  
lias y amenizados con música, se  
dirigieron a la plaza del pueblo.  
Por el camino no pidieron nada  
por las casas, sino que repartieron  
castañas que ellos mismos habían  
pintado. En la plaza tenían una  
gynkana aterradora, pero al mis-

mo tiempo divertidísima esperán-  
doles. El objetivo era completar  
el puzzle de los elementos de la  
Gau Beltza y para ello, tenían que  
encontrar a los personajes mis-  
teriosos que se escondían en los  
alrededores de la plaza y armarse  
de valor para pedirles cada pieza.  
Los niños y niñas marcharon de  
forma individual, en parejas o en  
grupos y todos y todas fueron su-  
per valientes y consiguieron todas  
las piezas. Completaron el puzzle  
y respondieron a la pregunta final:  
¿Qué se puede hacer con cala-  
baza? La propia respuesta fue el  
 premio y se repartió crema de ca-  
labaza y bizcocho de calabaza en-  
tre todas las personas presentes.



GARRALDA | 2022 · 09 · 22

## Garraldako hiltegia abian jartzeko plana

Garraldako hiltegia: urriaren 21ean hirugarren lan saioa egin zen Ekintza Plan bat prestatzeko eta, horren bidez, Garraldako Hiltetua proiektua abian jartzeko. Honatx parte-hartzaileak: abeltzainak, Garraldako Udala, Aezkoako Batzarra eta INTIA, GuPirineo nahiz Cederna Garalur erakundeeetako teknikariak. Talde Eragile bat eratu nahi da hiltegi zaharraren birgaitzea ahalbidetzeko, bertan azienda hiltzeko eta, era berean, Pirinioetako haragia eta haragi produktuak balorizatzeko.

## Plan para poner en marcha el matadero de Garralda

Matadero de Garralda: el 21 de octubre tuvo lugar la tercera sesión de trabajo para elaborar un Plan de Acción para la puesta en marcha del proyecto de Matadero en Garralda participan ganaderos, el Ayuntamiento de Garralda, la Junta del Valle de Aezkoa y técnicos de INTIA, GuPirineo y Cederna Garalur. El objetivo constituir un Grupo Motor que posibilite la rehabilitación del antiguo matadero, habilitando un espacio para el sacrificio y valorización de la carne y los productos cárnicos del Pirineo.

**Trebatu, nekazari eta abeltzainentzako tresna**

## Trebatu, una herramienta para la agricultura y la ganadería

**BAIGORRI**  
2022 · 09 · 06

2022ko urriaren 6an, jardunaldi tekniko bat egin zen Baigorri Trebatu izeneko tresna zer den jakiteko: erreleboan eta lehen instalazioan laguntzeko tresna da, 2016an sortua. Halaber, beste bi gune bisitatu ziren: nekazaritzar testa eta laborantza berritzailerako prestakuntza ibilbidea. Bisitaldian, Pirinioetako abeltzaineak eta toki entitateen hainbat ordezkarik parte hartu zuten, bai eta INTIA, GuPirineo nahiz Cederna Garalur erakundeeetako teknikariek ere. El 6 de octubre de 2022 se realizó una jornada técnica a Baigorri para conocer de cerca Trebatu: una herramienta de acompañamiento para el relevo y primera instalación creada en 2016, así como los espacios de test agrícola y el itinerario formativo de agricultura innovadora. En la visita participaron ganaderos y representantes de entidades locales del pirineo y técnicos de INTIA, GuPirineo y Cederna Garalur.





MENDIALDEA | 2022 · 10 · 03

## Mendialdeko 2023-2027 Toki Garapen Estrategia

Cederna Garalurrek bukatu du Nafarroako Mendialdeko 2023-2027 aldiko Toki Garapen Parte-hartzailerako Estrategia prestatzeko partaidetza-prozesua. Prozesuan ia 130 lagunek parte hartu dute lurraldeari buruzko diagnosi parte-hartziale bat egiteko eta proposamen berritzaleak proposatzeko, lurralderako atzeman diren erronka berriei erantzute aldera. Horrela, Toki Garapen Parte-hartzailerako Estrategiaren bidez, Europako funtsetako 7 milioi euro baino gehiago ekarriko dira lurraldea 2023tik 2027ra.

Estrategian hainbat eskualde daude sartuta, hala nola Pirinioak, Pirinioaurrea, Sakana, Mendarldea, Baztan – Bidasoa eta Zangozterria.

## Estrategia de Desarrollo Local de la Montaña 2023-2027

Cederna Garalur finaliza el proceso participativo para elaborar la Estrategia de Desarrollo Local Participativo 2023-2027 de la Montaña de Navarra. Durante el proceso han participado casi 130 personas para realizar un diagnóstico participativo del territorio y diseñar propuestas innovadoras que den respuesta a los principales retos identificados para el territorio. A través de la Estrategia de Desarrollo Local Participativo se inyectarán más de 7 millones de euros de fondos europeos en el territorio entre 2023 y 2027.

La Estrategia abarca las Comarcas de Pirineo, Cuencas Prepirenaicas, Sakana, Mendarldea, Baztan – Bidasoa y la Comarca de Sangüesa.

## Esteribarko berdintasun-diagnostikoa Diagnóstico de Igualdad de Esteribar

ESTERIBAR  
2022 · 11 · 16

Esteribarrek bere lehen Berdintasun Diagnostikoa egiteari ekin dio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lan-proposamenak ezagutzeko helburuarekin.

Esteribar se lanza a realizar su primer Diagnóstico de Igualdad con el objetivo de conocer propuestas de trabajo a favor de la igualdad entre mujeres y hombres.

## Jasangarritasun turistikoa Sostenibilidad turística

ZUBIRI  
2022 · 11 · 19

Esteribar barne biltzen duen Pirinioetako Jasangarritasun Turistikorako Planean (PSTD Pirinioak) onartu berri da. Cederna Garalur erakundearen eta Turismo zuzendaritzaren artean hitzarmena 2023ko udaberrian sina dadin Kudeaketa Plan bat landuko da, eta orduan, Cederna Garalur Pirinioetako PSTD plana gauzatzen hasiko da.

Se ha aprobado el Plan de Sostenibilidad Turística en Destino de Pirineo: PSTD Pirineo en el que está incluido Esteribar. Se va a trabajar un Plan de Gestión para la firma del convenio entre Cederna Garalur y la Dirección de Turismo en primavera 2023, fecha a partir de la cual Cederna Garalur podrá empezar a ejecutar el PSTD de Pirineo.

## **Artzain-gazten lehiaketa Concurso de quesos de pastoreo**

**PIRINIOAK**  
2022 · 11 · 12

Pirinioetako eta Pirinioaurreko artzain-gazten herri lehiaketa egin zen joan den azaroaren 12an, Urrotz hiriko ferietan. Aurtengo IV. edizioa Luzaideko Alberto Larrañetaren Aitzurre gaztandegiak irabazi zuen. Halaber, Iragiko (Esteribar) Angel M<sup>a</sup> Linzoainen Atekoa gaztandegiak parte hartu zuen.

Concurso popular de quesos de Pastor del Pirineo y Prepirineo el 12 de noviembre en la feria de Urroz Villa. Alberto Larrañeta de la quesería Aitzurre de Luzaide/Valcarlos fue el ganador de la IV edición, en la también participó Angel M<sup>a</sup> Linzoain de la quesería Atekoa de Irati (Esteribar).

## **Esteribar helmuga QR kodeetan Destino Esteribar en códigos QR**

**ESTERIBAR**  
2022 · 11 · 24

Esteribarko Udalak, Cederna Garalurrekin elkarlanean, Esteribarko ostattu, zerbitzu eta BTT trail ibilbideei buruzko argibidea eguneratu du 3 QR kodetan. Kodeak establezimendu eta zerbitzuetako datu kodetuak biltzen ditu, bai eta ibilbide eta bidexken eskaintza ere, eta webgune honetara bideratzen zaitu: [www.destinoesteribar.com](http://www.destinoesteribar.com). Beraz, kodeak mugikorrekko app-arekin eskaneatzekoa aukera ematen digu informazioa mugikorren bidez eskuratzeko eta deskargatzeko, turismo bulegoa itxita dagoen honetan.

El ayuntamiento de Esteribar en colaboración con Cederna Garalur ha actualizado la información de los alojamientos, servicios y rutas BTT Trail de Esteribar en 3 códigos QR, código que almacena datos codificados de los establecimientos y servicios, así como la oferta de rutas y senderos y que te redirige al sitio web [www.destinoesteribar.com](http://www.destinoesteribar.com). Estos códigos permiten al escanear con la app del móvil acceder y descargar la información través del teléfono móvil ahora que la oficina de información turística está cerrada.

## **Energia Informazio Zerbitzua Servicio de Información de Energía**

**ZUBIRI**  
2022 · 10 · 17

Cederna Garalurrek Energia Informazio Zerbitzua jarri du abian, herritarrek eta empresas ahokularitza jasotzeko eta argiaren zein gasaren fakturan nola aurreztu galdezko. Zerbitzua "Landa Jasangarritasuna 2" lankidetza proiektuaren baitan ematen da eta, bertan, Cederna Garalurrek Nafarroako Toki Ekintzarako beste Taldeekin batera hartzen du parte.

Cederna Garalur pone en marcha el Servicio de Información de Energía donde los particulares y las empresas pueden asesorarse y preguntar sobre cómo ahorrar en la factura de la luz y el gas. Esta servicio se realiza en el marco del proyecto de cooperación "Sostenibilidad Rural 2" en el que Cederna Garalur participa junto con los otros Grupos de Acción Local de Navarra.

# ERRIGORA: BAT EGITEKO GARAIA ERRIGORA: HORA DE UNIR FUERZAS



Bolondresak Ablitasen saskiak osatzen. Personas voluntarias, llenando las cestas en Ablitas.

Errigora euskararen sustapena, elikadura burujabetza eta auzolana batzen dituen herri ekimenda. Nafarroa hegoaldeko baratzetik datozen kalitatezko produktuak bidezko prezioan eskuratzentzuizte eta, voluntario sare baten bidez Euskal Herri osoan banatz, lortutako etekin ekonomiko guztia, oraindik ofiziala ez den eremuan euskara bultzatzeko inbertitzen dute.

Urtean bi kampaina burutzen dituzte, udazkenean Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka, eta udaberrian, berriz, Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura. Lehen kampainan, aurrez finkatutako 3 saski osatzen dira, askotariko produktuekin eta prezio desberdinakin. Prezioaren %25 euskara sustatzeko funts batera bideratzen

**Ekimena 2013an sortu zen eta 9 urte hauetan AEK euskaldegietan, Nafarroa hegoaldeko Ikastolek eta Sortzenek 1,6 milloitik gora euro jaso dituzte.**

**La iniciativa nació en 2013 y en estos 9 AEK, las Ikastolas del sur de Navarra y Sortzen han recibido más de 1,6 millones de €**

Errigora es una iniciativa popular que aúna el fomento del euskera, la soberanía alimentaria y el trabajo comunal o auzolan. Se encargan de adquirir directamente productos de calidad procedentes de las huertas del sur de Navarra a precio justo, los distribuyen a través de una red de personas voluntarias por toda Euskal Herria, e invierten todo el beneficio económico obtenido en impulsar el euskera en la zona que aún no es oficial.

Anualmente llevan a cabo dos campañas. En otoño, la denominada Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka, y en primavera, Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura. En la primera preparan 3 cestas prefijadas con productos variados y diferentes precios. El 25 % del valor de cada cesta se destina directamente

# 13.000

Saski banatu dira aurtengo 2022ko kanpainian. Son las cestas que se han repartido en la campaña de este año 2022.

# 200.000

Euro dira, aurten, Ager zonaldeko euskararen aldeko mugimenduari bideratuko zaizkiona.

Son los euros que se han destinado al movimiento a favor del euskera del Ager.

# 11

Saski dira, aurten, Esteribarren banatu direnak. Son las cestas que han sido repartidas en Esteribar.



## UDABERRIAN OLIBA-OLIO KANPAINIA BURUTUKO DA EN PRIMAVERA SE CELEBRARÁ LA CAMPAÑA DE ACEITE DE OLIVA

- Bigarren kanpaina udaberrian burutzen dute. Ekimen honetan Nafarroa hegoaldeko ekoizleengandik zuzenean oliba-olio birjina estra (5 litroko bidoiak), lekaleak, kontserbak, arroza eta pasta (produktu bakoitza 12 unidatetako kutxetak) eskuratu daitezke. Pertsona bakoitzak zuzenean edo internet bidez eskaera egin eta Errigorak bere herrian jartzen du bere esku.
- La segunda campaña la llevan a cabo en primavera. Esta vez adquieren directamente de productoras del sur de aceite de oliva virgen extra (bidones de 5 litros), legumbres, conservas, arroz y pasta (cada producto en lotes de 12 botes). Cada persona puede hacer su pedido y Errigora lo pone a su disposición en su localidad.



da zuzenean. Ekimena 2013an sortu zen eta 9 urte hauetan AEKeuskaltegiak, Nafarroa hegoaldeko Ikastolek eta Sortzenek 1,6 milioitik gora euro jaso dituzte. Bestetik, dinamika honen esker, azken urte hauetan Agerraldia ekimena ere sortu dute, Nafarroako Erdialde eta Erriberako euskaltzaleen sarea sustatzeko eta eremu horietan euskarazko agenda zabal bat aurrera eramateko.

2022ko kanpainian 13.000 saski banatu dira eta 200.000 € Agerreko euskalgintzara bideratua dira. Esteribarren 11 saski eta 171,25 € izan dira.

a un fondo para la promoción del euskera. La iniciativa nació en 2013 y en estos 9 AEK, las Ikastolas del sur de Navarra y Sortzen han recibido más de 1,6 millones de euros. Por otro lado, gracias a esta dinámica, en los últimos años también hemos creado la iniciativa Agerraldia, para impulsar la red de euskaltzales de la Zona Media y de la Ribera de Navarra y para llevar a cabo una amplia agenda en euskera en dichas zonas.

En esta campaña 2022 se han repartido 13.000 cestas y se han destinado 200.000 € al movimiento a favor del euskera del Ager. En Esteribar han sido 11 cestas y 171,25 €.

# GAZTEENTZAKO SAIO GIDATUAK SESIONES DIRIGIDAS PARA JÓVENES



**GAZTE TALDEA**  
DE LA PANTALLA A LA ZAPATILLA  
PANTAILATIK ZAPATILARA

**GRUPO JOVENES**

**14-18 URTE  
BITARTEKOAK  
PARA JOVENES  
ENTRE 14-18 AÑOS**

INFO + 948 30 40 07  
ZUBILAN@ESTERIBAR.ORG  
+ INFO EN 948 30 40 07  
ZUBILAN@ESTERIBAR.ORG

**DOAINIK ZURE  
ABONOAREKIN  
GRATIS CON TU  
ABONO**

**SAIO GIDATUAK. ASTELEHENAK CROSSFIT  
TRX, HIIT... ASTEAZKENA SPINNING, GYM  
18:00-19:00. ESTERIBARKO KIR. (ZUBIRI)**

**SESIONES DIRIGIDAS. LUNES CROSSFIT,  
TRX, HIIT... MIERCOLES SPINNING, GYM  
18:00-19:00. EN POL. ESTERIBAR(ZUBIRI)**

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

2022-2023 ikasturte honetan gazte taldearekin jarraitzen dugu Esteribar Kiroldegian eta jadanik 3 urte dira hasi ginenetik. 14 eta 18 urte bitartean badituzu, eta ariketa fisikoa egin nahi baduzu, gimnasioaren, crossfit-aren, spinning-aren eta intentsitate handiko gainerako entrenamenduaren munduan hasi eta sasoian egon nahi baduzu, zatoz Esteribarko kiroldegira. Adin tarte honetan zaudeten gazteek, Kiroldegira abonatuz, talde honetaz gozatu ahal izango duzue. Astelehenetan 18:00etatik 19:00etara crosstrain, gimnasioa, crossfit, HIIT, TRX; eta asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara gimnasioa edo spinning saioak. Ausartu eta sasoian jarri!!!

En este curso 2022-2023 seguimos con el grupo de jóvenes en el Polideportivo Esteribar y ya son 3 los años desde que empezamos. Si tienes entre 14 y 18 años, y te apetece hacer ejercicio físico, iniciarte en el mundo del gimnasio, el crossfit, el spinning y demás entrenamientos de alta intensidad y estar en forma, acércate al Polideportivo Esteribar. Los y las jóvenes que estáis en este rango de edad, con abonaros al Polideportivo en cualquiera de las modalidades podréis disfrutar de este grupo. Los lunes de 18:00 a 19:00 sesiones de crosstrain, gimnasio, crossfit, HIIT, TRX... y los miércoles de 18:00 a 19:00 gimnasio o spinning. ¡¡Atrévete y ponte en forma!!!

## Gargarintxoren urtebetetze festa Cumpleaños de Gargarintxo

ZUBIRI  
2022 · 11 · 26



Joan den azaroaren 26an Esteribarko hainbat familiek Gargarintxo Ludotekak aurten bete dituen 25 urteak ospatu zituzten. Arratsalde polita eta hunkigarria izan zen. Haurrek Kulkiren hiriko herri kirolen jolasekin dibertitzeko aukera izan zuten, eta ondoren, Zubiriko ludotekako handien taldeak prestatutako antzerkiarekin gozatu zuten. Antzerkiaren amaieran Gargarintxoren urtebetetzerako espreski sortutako "Zorionak Gargarintxo" kanta abestu eta txokolate beroa banatu eta familiek ekarritako bizkotxoak jan zituzten. Eguna amaitzeko, bertasuratutako guztiek ludotekaren 25

urte hauen inguruko proiekzioaz gozatu zuten. Filma Gargarintxo Ludotekak izandako ibilbide luzea partekatu duten hezitzale, teknikari, familia, lagun eta bereziki, ludotekaz gozatu duten haurrentzako omenaldi txiki bat izan zen, argazki, elkarritzeta eta bideo zaharrekin osatuta.


**El pasado 26 de noviembre varias familias de Esteribar celebraron los 25 años de la Ludoteca Gargarintxo. Fue una tarde muy bonita y emotiva. Los niños y niñas pudieron disfrutar con los juegos de deporte rural urbano de Kulki y más tarde, disfrutaron con el**

**teatro que prepararon los niños y niñas del grupo de mayores de la ludoteca de Zubiri. Al finalizar el teatro, cantaron la canción creada expresamente para la ocasión de "Zorionak Gargarintxo" y se repartió chocolate caliente acompañado de los bizcochos que llevaron las familias. Para finalizar el día, se proyectó un film con fotografías, entrevistas y videos en homenaje a todas esas personas que han sido y son parte de la Ludoteca Gargarintxo: educadoras, personas técnicas, familias, amigos/as y, en especial, txikis que han disfrutado de la ludoteca durante todos estos años.**


# Proleterka

Egilea | Autor: **Miren Iriarte eta Fernando Rey**  
 Editoriala | Editorial: **Erein**  
 Hizkuntza | Idioma: **Euskara | Euskera**  
 Edizio urtea | Año de edición: **2018**  
 Orrialdeak | Páginas: **120**  
 Tamaina | Tamaño: **130x195**

2002an Fleur Jaeggy idazle suizarrak argitaratutako liburu honetan idazle honek idatzitako liburu guztietan agertzen diren ardatzak islatuta daude. Hain zuzen ere, Proleterka izeneko itsasontzi batean gertatutako bidaia kontatzen duen arren, liburuak kutsu autobiografiko sakon bat dauka eta idazleak bizitako haurtzaroa eta nerabezaroa agerian dugu. Goi mailako familia baina hoztasuna eta urruntasuna lagun. Hori dela eta, heriotzak, hustasunak eta isiltasunak liburua ze-harkatzen dute. Hala ere, liburuaren estiloak ez du eramatzen irakurlea etsipenera baizik eta lekuko izatera.



En este libro de la escritora suiza Fleur Jaeggy aparecen reflejados los ejes temáticos de todos sus libros. Aunque se relata el viaje acaecido en un barco que se llama Proleterka, la novela tiene un contenido autobiográfico muy pronunciado ya que es visible la infancia y adolescencia de la autora. Una familia de buen nivel socioeconómico pero con la frialdad y la distancia como acompañantes. De esta manera, la muerte, el vacío y el silencio atraviesan el libro. Sin embargo, el estilo de la obra no lleva al lector o lectora a la depresión sino a ser testigo.



## Ottoline eta Kateme Horia

Egilea | Autor: **Chris Riddell**.  
 Editoriala | Editorial: **Ibaizabal Argitaletxea**  
 Hizkuntza | Idioma: **Euskara | Euskeria**  
 Edizio urtea | Año de edición: **2008**  
 Orrialdeak | Páginas: **174**

Ottoline eta Munroe jaun baxu eta iletsua, Piperbeltz-pote bezala ezagutzen den P.W. HUFFLEDINCK Dorreko 243 apartamentuan bizi dira.

Ottolinek euria du gogoko, Munroe jaunak ia gorroto. Ottolinek Munroe jaunaren ilea eskulatzea du gogoko, Munroe jaunak ilea eskulatu diezaiotela ez du batere gustoko. Hala eta guztiz ere, banaezinak dira eta biak batera arazo zailak konpontzen eta plan onak egiten apartak dira.

Hiri Handian hainbat lapurretaz gain alto-txakurrak desagertzen ari dira eta egin-dako ikerketa sakonak eta bilaketa zabalak gorabehera, polizia zer esan ez dakiela dago. Ottoline eta Munroe jaunak zer egingo dute?

Liburu honetako istorioa eta ilustrazioek Chriss Ridellen mundu irudimentsu eta zoragarria ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen digute.

8 urtetik aurrera. Eugiko liburutegian eskuragarri.

Ottoline y el bajito y peludo Sr. Monroe, viven en el 243 de la Torre P.W HUFFELNDICK, conocida como la Torre del Bote de Pimienta Negra.

Ottoline adora la lluvia; el Sr Monroe casi la odia. Ottoline disfruta peinando el pelo del Sr Monroe; al Sr Monroe no le gusta nada que lo peine. Y aún así, son inseparables y geniales solucionando problemas y haciendo buenos planes.

En la Gran Ciudad aparte de numerosos robos están despareciendo los perros falderos y a pesar de las investigaciones y búsquedas intensas, la policía anda no pudiendo descifrar el misterio. ¿Qué harán Ottoline y el Sr Monroe?


El texto y las ilustraciones de este libro nos ofrecen una gran oportunidad para conocer el imaginativo y formidable mundo de Chris Riddell.

A partir de 8 años. Disponible en euskera en la biblioteca de Eugi.

18

### ANTXORITZKO HAIZAK/PEÑAS DE ANTGORITZ

Markatutako bidea | Ruta Señalizada



7,8 km



525 m



525 m



2h - 2h 30min



Merendero  
Zabaldika




Merendero  
Zabaldika

Olloki herria eta inguruko mendirik garaiena, Lakarri, lotzen di-  
tuen mendi ibilbidea da. Iruñerriaren iparraldean 1.000 metroko  
garaiera duen lehen mENDIA da. Olloki herriaren goiko aldean  
(Eliza ondoan) hasten den ibilbidea da. San Miguel mendirantz  
igoko gara Ollokitik Altzuzara doan bidean barrena. Behin mendi-  
erroaren goiko aldean gaudela, Irotz gainean dauden antenetara  
daraman pistatik jarraituko dugu Esteribar eta Egues Ibarra bereis-  
ten dituen gailur-lerrotik. Belzunegi haitzaren parean bidezidor  
polit bat hartuko dugu Lakarriko tontorreraino (1046 m). Itzulera  
bide beretik egingo dugu.

Partiremos del Merendero de Zabaldika y ascenderemos por el  
paraje de Xaixulo hacia el Alto de Elordi. Desde este monte, des-  
cenderemos en dirección al Collado de Zabalgain y continuaremos  
por el cordal norte pasando por Arromendi y llegando a las Peñas  
de Antxoritz. Al llegar a las peñas, afrontaremos una trepada de  
grado II, por lo que se recomienda tener la capacidad física y téc-  
nica para afrontar ese paso. Para volver, seguiremos el camino de  
ida hasta un punto en el que nos desviaremos por un sendero que  
se introduce en un bonito pinar que recorre la ladera de Cara-Irotz,  
hasta bajar y cruzar la regata de Ezpeldi junto al pueblo de Zabaldika.  
De ahí, retornaremos al merendero de Zabaldika por un sen-  
dero que bordea dicha población.

#### PROFILA · PERFIL



## Agenda



### ESTERIBARKO LUDOTEKAKO EGUBERRITAKO KANPALDIA **CAMPAMENTO DE NAVIDAD DE LA LUDOTECA DE ESTERIBAR**

ABENDUAK 27, 28, 29, 30 DICIEMBRE  
URTARRILAK 2, 3, 4, 5 ENERO  
ZUBIRI, OLLOKI



### HAURRENTZAKO LEGO TAILERRAK EUSKARAZ **6-12 URTE**

ABENDUAK 27, 17:30-19:00. LARRASOAÑA  
URTARRILAK 3, 17:30-19:00. ILURDOTZ  
URTARRILAK 4, 17:30-19:00. ZURIAIN

Izen-emateak / [Inscripciones](#):  
Euskara Zerbitzua / [Servicio de Euskera](#)  
618 757 377

### GAZTEENTZAKO TAILERRA: GENERO INDARKERIAREN INGURUKO SPOT SORKUNTZA TAILERRA

URTARRILAK 4 ENERO  
EGUALA. ZUBIRIKO KIROLDEGIAN


Izen-emateak: urtarrilaren 3a baino lehen



### JOLASTUKO GARA? **3-6 URTEKO GURASOENTZAKO TAILERRA TALLER PARA MADRES Y PADRES DE TXIKIS DE 3 A 6 AÑOS**

ABENDUAK 29, 11:30-13:00  
ZUBIRIKO KIROLDEGIAN

Heldu bat eta haur bat edo bi gehienez / [una persona adulta y una/o o dos niñas/os.](#) ( No es necesario saber euskera para participar )  
Izen-emateak / [Inscripciones](#): Euskara Zerbitzua / [Servicio de Euskera](#) 618 757 377



### FAMILIA ANTZERKIA EUSKARAZ: 'ALTXOR GALDUAREN BILA', Tdiferencia

ABENDUAK 30, 17:30  
ZUBIRIKO KIROLDEGIAN

Izen-emateak / [Inscripciones](#):  
Euskara Zerbitzua / [Servicio de Euskera](#)  
618 757 377



# INFOESTERIBAR

SERVICIO DE WHATSAPP ZERBITZUA

Esteribarko Udalaren  
informazio guztia jaso  
nahi duzu WhatsApp\*  
bidez?

Bidali 'ALTA' hitza  
641 981 147 zenbakira  
eta informazio guztia  
jasotzen hasiko zara



¿Quieres recibir toda la  
información del  
Ayuntamiento de Esteribar  
a través de WhatsApp\*?

Envía la palabra 'ALTA'  
al 641 981 147 y  
comenzarás a recibir  
toda la información

\* Gogoan izan: Ez da talde bat, hedapen-zerrenda bat baizik

\* Importante: No es un grupo, es una lista de difusión.



Calistenia: Gorka Endjilorekin Calistenia-Workout Masterclass egin zen Zubirin. **Calistenia: con Gorka Endjilo se hizo la Calistenia -Workout Masterclass en Zubiri.**

Euskaraldia: Ibarreko ahobizi eta belarriprest-ak elkarteko baziaria izan zen GauTxorin. **Euskaraldia: En Gau-Txori se celebró una comida para reunir a las hermanas y orejas del Valle.**

